



MUSIKA

Adi bigarren gaztaroei!



001

PIZTU PUNK

AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Bazen ordua Piztu Punk taldeak diskoa estreinatzeko! 2008an sortu zuten taldea espreski Gasteizko Gaztetxearen eta Hala Bedi irrati librearen urteurren ospakizunetarako. Batez ere Gasteizko hainbat musikari beteranok (RIP, Obligaciones, Sumision City Blues, Karrocerias Betoño, Señor No, Sioux, Kontamina ke Algo Keda, Ale-Hop...) iraugitzen ez diren kanten bertsioak zuzenean plazaratu zituzten eta ikusleak txundituta gelditu ziren haien dotorezia, maisutasun eta indarrarekin. Horregatik, ordutik eskaera ugari izan dituzte, baina haien agenda estuen ondorioz, kontzerturik gabeko denbora tarte oso luzeak izan dira. Azken bi urteotan, baina, funda-

mentua jarri dute, kanta propioak idatzi dituzte eta zenbait partaide aldatu dira: Señor No-ko Xabik eta Sumision City Blueseko Pelak taldea utzi dute. Horien ordean, Leire jarri da aurrean mikrofonoan, pieza guztiek ezin hobe bat egin dute eta taldea kontzertuak ematen sasoi onenean dabil. Orain da momentua, bai ala bai!

Ospatzeko, zuzenekoan eskaintzen dutena erakusteko, eta idatzitakoa jasota gelditzeko, egunotan labetik atera berri dituzte bederatzi kanta oldarkor eta indartsu, zeinetan Leirek hainbat erregitrotatik egiten duen jauzi erraztasun eta solbentzia handiarekin, euskara, ingelesa eta gaztelania uztartuta: *Post gorrotoa* eskola zaharreko punk-rock espi-

dikoa da, gizarte honekiko urgentziazko okada. *Ateo light* da gezurrezko atoei emandako ostikada punk-rockero eta gitarreroa. *Yo no he sido* post-punk eta siniestroa da. *Mundo muerto* RIP taldearen klasikoaren berrirakurketa, Podri Rat-Zinger-en laguntzarekin. *Zure zain* hit-a da, 1977ko punketik edaten duen pieza melodikoa. Leirek bere esparru kutunenetako batera, Motörhead-enera, eraman du Probot taldearen *Shake your blood* hunkigarria. *Vuelve* punk-rock zirikatzaila eta dantzagarria da, erritmo handikoa. Soft Cell taldeak idatzi eta Imelda May-k berpiztutako *Tainted love* borobildu dute eta *Mundu hau akabo* taldearen eresi rockeroan Xabik eta Pelak ere parte hartu dute. ●